

**NAFARROAKO GOBERNUAREN KRISIAREN KONTRAKO
2011RAKO NEURRIAK.
ELAREN IRITZIA**

SARRERA

Nafarroako Gobernuak 2011rako krisiari aurre egiteko neurriak aurkeztu ditu. Agiriak hainbat gai biltzen ditu: enplegua, etxebizitza, neurri fiskalak, etab., eta “krisiaren aurkako” 70 neurri. Horretarako 72,9 milioi euroko aurrekontua izango du.

Nabarmentzekoak dira “enplegua sustatzeko” neurriak, batik bat enpresei kontratatzeko emango zaizkien diru-laguntzak eta sindikatu zein enpresari-erakundeek egindako programak (informazio, orientabide, prestakuntza, laneko ez den praktika eta prospekziokoak), gehi neurri fiskalak, funtsean enpresei zergak arintze aldera. Argi geratzen da “krisiaren kontrako plan” honen asmo nagusia zein den.

Bestalde, Gobernuaren dokumentuan agertzen den hainbat puntu aurrez onartuta zegoen, eta are martxan; beraz, ez dakarte ezer berririk.

Agiri honetan ELAk duen iritzia jaso dugu Miguel Sanzen Gobernuak aurkeztutako “krisiaren kontrako neurri” horiei buruz. Horretarako, eragin handiena izango duten puntuak aztertuko ditugu batez ere.

AZTERKETA

- Enpleguaren inguruko neurriak:

Nafarroako Gobernuak onartu duen programa baten helburua da “langabezian dauden pertsonen gaikuntza hobetzea”.

Horretarako, milioi 1 euro bideratuko du sektorearteko enpresari-elkarteek eta sindikatuek, nahiz irabazi asmorik gabeko erakundeek egindako programetara. Programa hauen xedea “langabeen enplegua lortzeko gaitasuna hobetzeko

ibilbideak” egitea izango da. “Ibilbide” horiek langabeei “informazioa, orientabidea, prestakuntza, lanekoa ez den praktika eta prospekzioa” eskaintzea da.

Beste bi neurri ere aipatzen dira, “enpleguaren bilaketa aktiboa” eta “45 urtetik gorakoak laneratzea” bultzatzeko. Azken hauek UGT, CCOO eta CENekin zehaztekotan daude. Aurkeztu den planak ez du zehazten nola gauzatuko diren, zenbat diru bideratuko duten, ez funts horiek nork jasoko dituen ere.

Enplegua “sustatze”ari dagokionez, neurri konkretua enpresei diru-laguntza ematea da, egiten duten kontratu bakoitzeko, beste xehetasunik gabe. Nolanahi ere, argi dago aldi baterako zein lanaldi partzialeko kontratuak diruz lagunduko dituztela. Honetarako 2011n guztira 320.000 euroko aurrekontua izango da.

KONTRATU MOTAREN ARABERAKO ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK (€)

Iraupen mugagabea	1.800
Iraupen mugatua	700
Ezintasuna dutenentzako aldi bataerako kontr.	1.100
Aldi baterakoa mugagabe egiteko	1.100
Oinarrizko errenta duten langabeak	500
Lanaldi partziala (gutx. %50) eta aldizkako finkoak	Zati proportzionala

Iturria: Nafarroako Gobernua

Tokiko erakundeei eta enpresa publikoei ere diru-laguntzak emango zaizkie langabeak eta Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonak aldi baterako kontratatuz gero, interes publikoa duten komunitaterako lanak egitekotan. Neurri honetarako 4 milioi euroko aurrekontua dago, eta bere helburua aldi baterako 500 enplegu sortzea da.

- Neurri fiskalak

Neurri fiskal nagusietako bat enpresa txiki eta ertainentzako (ETE) zerga-muga igotzea da, 9tik 10 milioira. Orain arte zergei dagokienez ETEtzat hartzen ziren milioi 1 eta 9 milioi euro arteko negozioa egiten zutenak. Aurrerantzean 9 eta 10 milioi artean daudenak ETE gisa ordainduko dituzte zergak, hots, Sozietateen Zergan 3

puntu gutxiago (enpresa handien %30etik ETEen %27ra). Ez da zehazten honen ondorioz kutxa publikoetan zenbat diru gutxiago sartuko den.

Gainera, dokumentuan “krisiaren kontrako neurri” gisa jasotzen da 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den zerga-jaitsiera bat: mikro-ETEentzat (%23tik %20ra), ETEentzat (%28tik al %27ra) eta ekonomia sozialeko enpresentzat (%18tik al %17ra). Honi dagokionez, jaitsiera 2010eko aurrekontuekin batera gauzatu zen zerga-erreforman onartu zen.

Dena dela, enpresa-errentei eta errenta profesionalei beste bide batetik ere zergak jaisten dizkiete, autonomoentzako moduluetan %5 murriztuko baitira zergak, eta langileak kontratatzeak ez baitu zerga-kosturik izango.

Beste neurri fiskal bat, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera kaleratutako langileen kalte-ordainetan ez dela zergarik ordainduko, enpresan edo talde bereko beste enpresa batean berriro lanean hasiz gero. Neurri hau ere 2011ko aurrekontuekin onartu zen zerga-erreforman sartuta zegoen, eta ELAren salaketa bati esker erabaki da.

KONKLUSIOAK

1.- Nafarroako Gobernuak aurkeztu dituen “krisiaren kontrako 2011rako neurri”ek propagandarekin dute zerikusia. Planak helburu bakarra du, Gobernua krisiaren aurrean oso aktiboa dela agertaraztea, maiatzeko hauteskundeak laster baitatoz. Horregatik, 2011rako krisiaren aurkako neurri gisa aurkezten ditu urtebetetik gora martxan zeuden neurri fiskalak, edota aurrez ere iragarritako beste batzuk.

2.- Enplegua sustatzeko neurriek ez dute lanpostu bat ere sortuko. Diruz lagundu besterik ez dute egingo, edozein kontratu mota, bat ere bereizi gabe. Hau ezin da onartu, izan ere:

- Adostasun zabala dago kontratuentzako diru-laguntzek ez dutela enplegurik sortzen. Politika honi eusteak azalpen bakarra du, enpresei diru

publiko gehiago ematea erabakita dagoela, etekinak handiagoak izan daitezten.

- Nafarroan erregistratutako kontratuen %92,8 aldi baterako izan zen. Ez da posible Nafarroako Gobernuak kolokako enplegua eta kontratu prekarioak diruz laguntzea. Honela UPNren Gobernuak enpresei dirua ematen die prekaritatea areagotu dezaten.

3.- Salatzekoa da enpleguari buruzko neurrietako bat sindikatuak eta enpresari-elkarteak diruz laguntzea izatea, orientabide eta informazio laborala ematearen truke. Nafarroako Gobernuak neurri honen bidez milioi 1 euro banatu nahi du 'gizarte-elkarriketa' delakoan bere politikari babesa ematen dioten erakunde sindikal eta patronalei.

4.- Planarekin zerga-politika gero eta injustuagoa, elkartasunetik urrunago dagoena indartzen da. Orain aurkezten diren Sozietate-Zergaren jaitzierak dagoeneko onartuta badaude ere, argi geratzen da Gobernuaren helburua zein den; bere zerga-politika antisoziala da.

ETE gisa zergak ordaintzeko muga 9 milioitik 10ra igotzea ere sozietateen zerga murritztea da. Noski, zalantza egin daiteke 9 eta 10 milioi arteko negozioa egiten duten enpresak benetan ETEak ote diren, baina are okerragoa da ez dutela zehazten ogasunak zenbat diru gutxiago bilduko duen.

5.- Kaleratutako langileek jasotako kalte-ordainak zergarik ez ordaintzea, enpresa berean edo talde bereko beste batean berriz lanean hasiz gero, ELAren salaketa baten ondorio da. Sindikatu honek salatu zuen kontratuak amaitzeko EEEdak zeuden enpresetan, enpresa berean berriz lana emateko akordioa zegoen kasuetan, langileak jasotako kalte-ordainaren zergak kitatu behar zituela. Lege-aldaketa 2011ko aurrekontuekin batera egin zen zerga-erreforman egin zen.

6.- Neurri hauek nagusi den logika neoliberalaren ondorio dira. Diru-sarrera publikoei kalte eragiten diete, zergatan gutxiago biltzen delako eta gastu publikoan enpresei lehentasuna ematen zaielako. Harritzekoa da Gobernuak, gastu publikoa

eta batik bat gizarte-gastua zeharo murriztu duen honetan (horrek enpleguan eta gizarte-ongizatean dakarren kaltearekin), krisiaren kontra borrokan ari dela sinetsarazi nahi izatea.

7. ELAk exijitzen du Nafarroako Gobernuak dioenez Plan hau kostako den 72,9 milioi horiek erabil ditzala gizarte-gastua gehitzen eta enplegu publikoa sortzen, osasungintzan, irakaskuntzan edo gizarte-zerbitzuetan. Honela aurrera egingo litzateke gizarte justuago baterantz; eskubide sozialak hobetuko lirateke, ekonomia iraunkorragoa egingo luke eta enplegu egonkorra, kalitatezkoa, sortu. ELAk beste batzutan eskatu izan duen moduan, zerga-politika goitik behera aldatu eta politika publikoek xede hori izan beharko lukete: eskubide sozial gehiago, gizarte-gastu handiagoa eta diru-sarrera publiko ugariagoak, zerga-politika justuago eta progresiboago baten ondorioz.